

Astigarragako

SANTIAGO ERMITA

Aurkezpen orokorra

Astigarragako Santio ermita izen bereko mendi gailurrean kokatua, Santio apostoluari eskainita dago. Ermitak kultur ondare ezaugarriak ditu eta horretaz gain mendia ingurumen leku esanguratsua da. Gailurrak 306 metroko altitudea dauka eta bertatik Astigarraga eta eskualde osoko bista ederrak gozatu daitezke. Baserriak, landetxeak eta sagardotegiak mendian zehar sakabanatzen dira, paisaian nabarmentzekoak dira sagastiak, Astigarragako sagardogintzaren jatorria.

Ermitaren deskribapena eta ezaugarriak

Ermita 1525ean eraiki zen, adituek diotenez XIII. mendeko aurreko baten gainean eta eraikuntza erromanikoa da nabarmen. Oinplano errektangeluarra, abside zuzena eta nabe bakarra ditu aurrean eta alboetan. Harlangaitzaz eraikita dago eta zenbait ezarkin ditu aurrean eta alboetan.

Aurreko aldean, espadaina gisa errematatua eta kanpai bat duelarik, erdi-puntuko arkuz egindako sarrera zaharra dago. 1989. urtean, eskubiko aldea eraberritu zen eta Naturaren Aterpetxe-Eskola bertan jarri zen.

Barruan, XVII. mendeko erretablo sotil bat dago eta bertan San Sebastian, San Kristobal, Kristo eta Santiagoren irudiak agertzen dira, azken hau zaldi gainean eta eskuan ezpata duela.

Santio irudia

Garai batean, Santiago erromesaren taila bikain bat zegoen, ziurrenik ere XIII. mendekoa eta alabastroz egina, 38 cm neurtzen ditu. Oinezko erromes itxura dauka, jantzia tunika luze bat da eta oinutsik dago. Soinean gurutzatuta, eskuinaldean zakua eta ezker aldean, uraren kuitatxo. Eskubiko eskuan erromesaren pordoia eta ezkerrekoan berriz, liburu bat. Aurpegian bizar ugaria eta buruan kapela bat darama. Kapelaren aurrekaldeko hegalean erromesen maskorra apaingarri.

Santioren irudi hau balio handiko da, arte munduan oso estimatua eta gaur egun Elizbarrutiko Museoan dago. Aldareko hutsunean tailaren kopia bat jarri zen.

Kanpoaldea

Inguru honen antzinako izena Hermana zen eta inguruan egin diren indusketa lanetan bi fosil mota azaldu dira, "Belemnite" izenekoak bastoi edo makila formakoak eta "Pacten Aequivalvis" erromesen maskor formakoak. Tradizioak dio Erdi Aroko Santio Bidea Oiartzun eta Astigarraga artean bertatik igarotzen zela eta gaur egun Kostaldeko Bideak zeharkatzen du.

Historian zehar hainbat gertaera ezagutu izan ditu, gerra karlisten garaian kalte handiak jasan zituen eta 1923an erabat berritu zen Foru Aldundiaren eta herritarren laguntzari esker. 1936ko gerra zibilean militarri okupatuta egon zen, hasieran errepublikanoen tropak eta gerora erreketek eta nazionalak.

Ohitura eta festa herrikoiak

Santio egunean meza nagusia izaten da ermitan baina Santiagomendiko jai nagusia San Roke egunean ospatzen da, abuztuaren 16an. Goizeko mezaren ondoren Astigar Dantza taldearen emanaldia, bazkari herrikoia eta arratsaldean erromeria egin ohi dira.

Garai batean bigarren Pazko Eguna ere ospatzen zen eta San Isidro jaia ere bai, maiatzaren 15ean, baserritarren zaindaria.

Arantxa Arzamendi

2021eko urtarrilak